

**COORDINADORA de ONGD de
EUSKADI – GGKE elkartearen
ESTATUTUAK**

2014ko urtarrilak 18

I. KAPITULUA

IZENA

1. artikulua. COORDINADORA DE ONG DE DESARROLLO DE EUSKADI – GGKE elkarte, (aurrerantzean Koordinakundea), garapenerako lankidetzan diharduten erakundeen sarea, irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, 1988ko irailaren 19an inskribatu zena AS/B/01166/1988 erregistro zenbakiarekin. Elkarte horren Estatutuak 2014ko urtarrilaren 18ko Ez-ohiko Batzar Nagusian aldatu ziren kide guztien adostasunarekin, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuko 9. eta 10.13 artikuluei jarraiki.

Elkarte hori ondoko hauen arabera arautuko da: Elkarteen Legeetan jasotako manuak, Estatutu hauek (betiere Legearen aurkakoak ez badira), gobernu organoek adostutako baliozko akordioak (betiere Legearen edota Estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onartzen dituen arauzko xedapenak, baina azken horiek modu ordezkatzailean baino ez dira aplikatuko.

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua. Hauek dira elkarte honen helburuak:

- Kalitatezko garapenerako lankidetzaren sustatzea, bai euskal erakunde publiko eta pribatuetan, bai Koordinakundeko kide diren erakundeen artean.
- Koordinakundeko kide diren erakundeek abiatutako prozesuei laguntzea, dauzkaten gaitasun politiko eta teknikoak indartuz.
- Gure inguruneko eraldaketa soziala bultzatzea, herritarren artean elkartasunaren kultura sustatuz, desberdintasuna eta pobrezia sortzen duten egiturak aldatuz eta jendearen parte-hartze eta eztabaida kritikoari bide emanez, aztertu dezaten nolako harremana dagoen gure garapen eredu patriarkal eta neoliberalaren eta pobrezia-aren eta Ipar-Hego arteko desberdintasunen artean, dena ere Koordinakundeko kide diren taldeek sarean egindako lanaren bitartez.

Helburu horiek betetzeko jardura hauek burutuko dira, betiere legeak ezartzen dituen baldintzak betez:

- Interes komuneko gaiak aztertzea eta ondoko hauei zuzendutako ekintzak modu koordinatuan proposatu, defendatu eta gauzatzea: tokiko, Estatuko nahiz nazioarteko iritzi publikoari, indar sozial eta politikoei, nazioarteko erakundeei, Espainiako Estatuko

Administrazioari, Autonomia Erkidegoetako Administrazioei, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioari eta tokiko erakundeei.

- Koordinazioko unitate operatiboak sortzen laguntzea arlo hauetan: garapenerako hezkuntza, larrialdiak, garapenerako proiektu eta programak, boluntarioak eta kooperanteak, eta Koordinakundeak, lurralde-batzordeak edo zuzendaritza-batzordeak egoki irizitako beste edozein arlo.
- Indarrean dagoen Portaera Kodearen zabalkundea eta aplikazioa bultzatzea. Kode hori Koordinakundearen web orrian jarriko da ikusgai eta Koordinakundearen delegazioetan ere eskatu ahal izango da.

Aurreko atalean azaldutakoez gain, Elkarateak ondoko hauek ere gauzatu ahal izango ditu bere helburuak betetzeko:

- Era guztietako jarduera ekonomikoak garatzea, bere helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak lortzeko.
- Era guztietako eta edozein titulu bidezko ondasunak eskuratzea eta edukitzea eta era guztietako egintzak zein kontratuak egitea.
- Legeen edo bere Estatutuen arabera era guztietako ekintzak egitea.

EGOITZA SOZIALA

3. artikulua. Elkarate honen egoitza nagusia Bilbon (Bizkaia) egongo da, Erronda kalean (z/g 48005).

Elkarateak beste lokal batzuk eduki ahal izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, Batzar Nagusiak hala erabakitzen badu.

LURRALDE EREMUA

4. artikulua. Batez ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean EAE) garatuko ditu bere eginkizunak.

Koordinakundeko bazkide diren eta egoitza EAEko lurralde historikoetan edo herrietan duten erakundeen premiek hala eskatzen badute, lurralde ordezkariak sortu ahal izango dira, baldin eta egoitza eta lurralde eremua EAEn badute. Ordezkaritza horiek sortzeko Batzar Nagusiaren onarpena beharko da.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua. Elkartea irauteko eratu da, eta, VI. kapituluaren adierazitakoaren arabera, Ez-ohiko Batzar Nagusia hartutako erabakiaren bidez baino ez da desegino, edo legeetan aurreikusitako edozein arrazoiren bitartez.

Elkarteren barne-antolakuntza eta funtzionamendua demokratikoak izan beharko dira, eta aniztasuna errespetatu beharko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarriko eskubidearen edozein alderdi kontuan hartzen ez duten hitzarmenak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

II. KAPITULUA

GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOKAK

6. artikulua. Kide anitzeko organo hauek gobernatu eta administratuko dute Elkartea:

- Bazkideen Batzar Nagusia izango da organo gorena.
- Zuzendaritza Batzordea izango da zuzendaritza iraunkorreko kide anitzeko organoa.

BATZAR NAGUSIA

7. artikulua. Elkarteko bazkide diren erakunde guztiek osatzen dute Batzar Nagusia; gobernu organo gorena da eta bazkideek bertan adierazten diote beren iritzia Koordinakundeari, ekainaren 22ko Euskadiko Elkarteen 7/2007 Legearen 16.3 artikuluan jasotakoari jarraiki.

Batzar Nagusiaren eskumenak dira:

- a) Koordinakundearen ekintza plan nagusia onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertzea eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa lana onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkartea desegitea.
- f) Presidentea, idazkaria, diruzaina eta, baldin eta baleude, kide anitzeko gobernu-organoko gainerako kideak hautatzea, kargutik kentzea, ikuskatzea eta kontrolatzea.
- g) Beste elkarte batzuekin federatzeko eta konfederatzeko egintzak egitea edo euretako bat uztea.
- h) Ondasun higiezinaren erabilera edo besterentzea onartzea.
- i) Gobernu-organoko kideen ordainsariari buruzko erabakia hartzea, hala badagokio.

- j) Ohiko edo ez-ohiko kuotak zehaztea. Dena dela, Batzar Nagusiak eskumen hori gobernu-organoarengan delegatu ahal izango du horretarako hartutako erabaki baten bitartez.
- k) Bazkide diren elkarteengandik behin betiko banatzeko erabakia hartzea.
- l) Elkarteko beste organo bati esleituta ez dagoen beste edozein eskumen.

8. artikulua. Batzar Nagusiak ohiko eta ezohiko bilerak egingo ditu, eta bilera horietako aktak jasoko ditu.

9. artikulua. Urtean behin gutxienez Batzar Nagusia ohiko bilerarako deitua izango da bigarren hiruhilekoan, 7. artikuluko a), b) eta c) ataletan aurreikusitako erabakiak hartzeko.

10. artikulua. Batzar Nagusiak ez-ohiko bilera egingo du, Zuzendaritza Batzordeak hala erabakitzen badu bere ekimenez edo bazkideen %25ak hala eskatuta, Zertarako eta zergatik bilduko diren adierazi beharko du eta, besterik ezean, gai hauen berri emateko eta horien inguruko erabakiak hartzeko izango da:

- a. Estatutuak aldatzea.
- b. Elkartea desegitea.

11. artikulua. Batzar Nagusien deialdiak idatziz egingo dira (posta elektronikoz edo posta arruntez), eta bertan adierazi beharko da zer leku, egun eta orduetan egingo den bilera eta zein izango den gai-zerrenda. Deialdiaren eta batzarra lehen deialdian egiteko zehaztutako egunaren artean hamabost eguneko tarte utzi beharko da gutxienez. Era berean, hala badagokio, batzarra bigarren deialdian zein egun eta orduetan egingo den adierazi beharko da. Dena dela, bi deialdien arteko tarte ordu erditik gorakoa izan beharko da gutxienez.

Ohiko eta ez-ohiko batzar nagusiak behar bezala eratuko dira lehenengo deialdian, baldin eta bozkatzeko eskubidea duten bazkideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, edozein dela ere bozkatzeko eskubidea duten bertaratutako bazkideen kopurua.

12. artikulua. Batzar Nagusiak bertaratutakoen edo ordezkaturakoen gehiengo sinplez hartuko ditu erabakiak, hots, baiezko botoen kopurua ezezkoena baino handiagoa denean. Edonola ere, bertaratu edo ordezkaturako elkarteetan bi hereneko gehiengo kualifikatua beharko da erabaki hauek hartzeko:

- a. Elkartea desegitea.
- b. Estatutuak aldatzea.
- c. Ondasunak erabiltzea edo besterentzea.
- d. Ordezkaritza-organoko kideen ordainsaria zehaztea.

13. artikulua. Bazkideek beren ordezkaritza eskuordetu ahal izango diote beste edozein bazkideri batzar nagusietara joateko. Ordezkaritza hori idatziz emango da, eta batzarreko

ordezkariari aurkeztu beharko zaio bilera egin baino 24 ordu lehenago. Beren egoitza Elkarteko helbide soziala ez den hiri batean duten erakundeek postaz bidali ahal izango dute ordezkartzaren egiaztatzea.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

14. artikulua. Zuzendaritza Batzordea ordezkartza-organoa da, eta elkartearen interesak kudeatzen eta ordezkatzeko ditu, Batzar Nagusiaren xedapen eta zuzentzararen arabera. Bazkideak baino ez dira izango ordezkartza-organoko kide.

Zuzendaritza Batzordeak presidentea, presidenteordea, idazkaria, diruzaina eta bat, bi edo hiru kide izango ditu.

Gutxienez, hiru hilerik behin batzartuko dira, eta jarduera soziala behar bezala garatzeko behar den guztietan.

15. artikulua. Zuzendaritza Batzordeko kideak ez badira bilerara agertzen inolako arrazoirik eman gabe hiru aldiz jarraian edo tartekaturik urtean 6 aldiz, kargua utzi beharko dute.

16. artikulua. Batzar Nagusiak aukeratuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kideak, eta 4 urtez egongo dira karguan, aurkakoa adierazten ez bada. Berrir hautatu daitezke, baina askoz jota bi ekitalditan.

17. artikulua. Zuzendaritza Batzordeko kide izateko derrigor bete beharreko baldintzak:

- a) Adinez nagusia izatea, eskubide zibilen erabateko erabilera izatea eta indarrean dagoen legerian ezarritako bateraezintasunik ez edukitzea.
- b) Estatutuaren aurrekusi bezala izendatua izatea.
- c) Koordinakundeko bazkide den elkarte bateko kide izatea.

18. artikulua. Zuzendaritza Batzordeko kideek kargua hartuko dute, behin Batzar Nagusiak izendatutakoan eta onartu eta haren jabetza bereganatutakoan.

Batzar Nagusiak erabaki dezake Zuzendaritza Batzordeko kideei dietak eta gastuak ordaintzea.

19. artikulua. Zuzendaritza Batzordeko kideek kargua utziko dute kasu hauetan:

- a) Agintaldia amaitzen denean.
- b) Dimitituz gero.

- c) Bazkide izateari uzten badio edo ezgaitasunen bat badu.
- d) Estatutu hauetako 16. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Batzar Nagusiak kargugabetzea erabakitzen badu.
- e) Hiltzen bada.

Kargua a) atalean aurreikusitako arrazoiarengatik utziz gero, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute, harik eta lehenengo Batzar Nagusia egin eta kargu berriak aukeratzen diren arte.

b), c), d) eta e) kasuetan, Zuzendaritza Batzordeak behin-behineko izendapen bat egingo du hutsik dagoen kargua betetzeko, eta Batzar Nagusiak berretsi edo ezeztatu egingo du. Ezeztatze erabakia hartuz gero, kasuan kasuko izendapena egingo du.

Organo horren osieran egiten diren aldaketa guztien berri eman beharko da Elkartearen Erregistroan.

20. artikulua. Hauek dira Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak:

- a) Elkartearen ohiko kudeaketa zuzentzea, Batzar Nagusiaren jarraibideen arabera eta haren kontrolpean.
- b) Elkarteak garatu beharreko jarduerak programatzea.
- c) Gastuen eta diru-sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera Batzar Nagusiari bidaltzea, onartu ditzan.
- d) Batzar Nagusiaren bileretarako gai-zerrenda osatzea eta ohiko naiz ez-ohiko Batzar Nagusietarako deiak noiz egingo diren adostea.
- e) Bazkideek egindako proposamenak edo iradokizunak jasotzea eta beharrezko neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta dauden gabeziak estaltzea, betiere indarrean dagoen elkarteei buruzko legezko araudia betez.
- g) Batzar Nagusiak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira bere eskumen eskusibokoak.

21. artikulua. Presidenteak bere ekimenez edo edozein kideren ekimenez zehazten duen guztietan batzartuko da Zuzendaritza Batzordea. Presidenteak zuzenduko du bilera, edo, bera ez badago, presidenteordeak edo, bata zein bestea ez badaude, urte gehien dituen batzordekideak.

Batzordearen erabakiak baliozkoak izateko bertaratutakoen gehiengoaz onartu beharko dira, eta batzordekideen erdiak egon beharko du bertan. Berdinketa gertatuz gero, presidenteak kalitatezko botoa izango du. Idazkariak bileretako akta egingo du eta dagokion liburuan transkribatuko du.

KIDE BAKARREKO ORGANOAK

PRESIDENTEA

22. artikulua. Elkarteko presidentea da elkartearen legezko ordezkaria, eta berak betearaziko ditu bere presidentetzapean dauden Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiak.

23. artikulua. Presidenteak eskumen hauek izango ditu:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Nagusiaren bileretarako deia egitea, bilerei hasiera ematea, bateko zein besteko eztabaidak zuzentzea eta kalitate-botoaren bidez erabakiak hartzea, berdinketarik gertatuz gero.
- b) Zuzendaritza Batzordeari elkarteko jardueren plana proposatzea eta zereginak sustatu eta zuzentzea.
- c) Behar den moduan hitzartutako ordainketak agintzea.
- d) Presazko gaien erantzuna ematea eta Zuzendaritza Batzordeari horien berri ematea egiten den lehenengo bileran.
- e) Batzar Nagusiak berriazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira bere eskumen eskusibokoak.

PRESIDENTEORDEA

24. artikulua. Presidenteordeak presidenteari lagunduko dio eta ordezkatu egingo du aldi batez kargua betetzerik ez badu. Era berean, presidenteak hainbat eskumen eskuordetu ahal izango ditu beragan.

IDAZKARIA

25. artikulua. Idazkariak elkartean sartzeko eskaerak jaso eta bideratuko ditu, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua eramango ditu eta Akta Liburua zaindu eta idatziko du.

Era berean, elkarteei buruz indarrean dauden legezko xedapenak betearaziko ditu, erakundearen agiri ofizialak zainduko ditu, elkarteko liburuen eta artxiboaren edukia ziurtatuko du eta agintaritzaren eskudunak zuzendaritza-batzordeen izendapenari eta helbide-aldaketei buruzko derrigorrezko jakinarazpenak jasotzen dituela bermatuko du.

DIRUZAINA

26. artikulua. Diruzainak diru-sarreraren eta ordainketen berri emango du, diru-sarreraren eta gastuen urteko aurrekontua formalizatuko du eta aurreko urteko kontuen egoera prestatuko du, Zuzendaritza Batzordeari aurkezteko. Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusiari bidaliko dizkio, onartu ditzan.

III. KAPITULUA

ERAKUNDE BAZKIDEAK

27. artikulua. GGKEen Koordinakundea garapenerako gobernu kanpoko erakundeez osaturik dago eta erakunde horiek EAEn edo EAetik gauzaten dute beren jarduera, menpekotasun funtzional edo organikorik izan gabe ezein administrazioarekin (Estatukoa, gobernu artekoa, autonomikoa, tokikoa) edo enpresa talderekin. Erakundeen jarduera legezkoa eta irabazi asmorik gabekoa da, eta elkarrean helburu zehatzak nahiz jarduerak bat datoz Koordinakundearenekin, arlo hauetako edozeinetan: garapenerako hezkuntza, larrialdiak, garapenerako proiektu eta programak, boluntarioak eta kooperanteak eta Koordinakundeak etorkizunean onar ditzakeen gainerako guztiak.

Erakunde horiek ideologia politiko, erlijioso edo sozial jakin batzuetara orientatuta daude, baina beren programetan lankidetzaren izaera unibertsala bermatu behar dute, inolako proselitismo edo bazterkeriarik gabe. Bistan denez, beren helburuak edo horiek lortzeko bitartekoak ezin dira izan Nazio Batuen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren aurkakoak.

28. artikulua. Bazkide izan ahalko dira eskakizun hauek betetzen dituzten elkarrekin:

- a) Koordinakundearen helburuak eta filosofia esplizituki onartzea Estatutuek dioten bezala.
- b) Eskakizun hauek denak esplizituki eta idatziz onartzea.
- c) Portaera kodea esplizituki eta idatziz onartzea.
- d) Legez aitortua izatea eta garapeneraren esparru zehatz batean urtebeteko esperientzia frogatua izatea. Hori frogatzeko, eskaerarekin batera aurkeztu beharko dituzte Estatuaren legezko kopia, jarduera memoria eta arduradunen izen-abizenak eta helbidea. Agiri horiek denak gutxienez Koordinakundeko bi kidek aurkeztu beharko dituzte.
- e) Oinarri sozial esanguratsua izatea elkarrekin jarraipena izango duela bermatzeko eta ezarpen maila jakin bat izatea EAEn garapenerako lankidetzaren jardueretan.
- f) Behar adinako azpiegitura autonomoa izatea.
- g) Zuzendaritza Batzordearen bileran kideen gehiengoak onartuak izatea eta erabaki hori Batzar Nagusian berrestea.

29. artikulua. Elkarteko bazkide izan nahi duten erakundeek idatziz eskatu beharko diote presidenteari, ondoko hauek jasotzen dituen ziurtagiriarekin batera:

- Elkartean sartzeko nahia, horretarako eskumena duen organoak behar bezala baliozkotua.
- Pertsona juridikoaren izenean jardungo duen pertsonaren izendapena.
- Koordinakundearen Estatutuak onartzea eta betetzea.
- Portaera Kodea onartzea.

Aurreko artikuluko d) atala betetzen dela ziurtatzeko, horrekin batera aurkeztuko dira Estatutuen kopia, dagokion Erregistroan inskribatuta dagoela adierazten duen ziurtagiria (organismo eskudunak emana) eta erakundearen memoria eta balantze eguneratuak.

Gainerako eskakizunak ziurtatzeko zuzenbidean onartzen den edozein modu erabili ahal izango da.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. artikulua. Hauek dira bazkideen eskubideak:

- 1) Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabakien eta jardueren aurka egitea, eskatzaileak erabakiaren edukiaren berri izan duenetik edo berri izateko aukera izan duenetik kontatzen hasi eta berrogei egun naturaleko epean.
- 2) Elkarteko gobernu eta ordezkaritza organoen osaerari, kontuen egoerari eta jardueraren garapenari buruzko informazioa jasotzea.
- 3) Elkarteko gainerako bazkideak nor diren, diru-sarreraren eta gastuen kontuak nola dauden eta elkarteko jarduera nola garatzen den jakitea une oro, datu pertsonalen babeserako araudian aurreikusitako baldintzetan.
- 4) Batzar nagusietarako deia jasotzea, bileretara joatea eta, bertan, hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea erabiltzea. Horretarako, beste bazkide batzuei eskuordetu ahal izango die bere ordezkaritza.
- 5) Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organoetan parte hartzea eta aldi berean, haietarako hautesle zein hautagai izatea.
- 6) Indarrean dagoen legerian aurreikusitakoaren arabera, bazkideen fitxategian agertzea eta Elkarteenen ikurra erabiltzea, halakorik balego.
- 7) Estatutuen eta, halakorik balego, Barne Araudiaren ale bana edukitzea eta zuzendaritza-organoetan eskabideak zein kexak aurkeztea.
- 8) Elkarteko ekintza kolektiboetan parte hartzea eta bazkideen erabilerarako elementuak erabiltzea (lokal soziala, liburutegiak, e.a.).
- 9) Zigor neurriak hartu baino lehen, idatziz entzuna izatea eta beren betebeharrak ez betetzeagatik hartuko liratekeen neurrien zergatia jakitea.
- 10) Edozein unetan baja hartzea, euren gain hartutako eta bete gabeko konpromisoei kalterik egin gabe.
- 11) Koordinakundearen zerbitzuak baliatzea.

31. artikulua. Hauek dira bazkideen betebeharrak:

- a) Elkarteenen helburuak partekatzea eta haien lortzen laguntzea.

- b) Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion kuotak, derramak eta bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutu hauetan ezarritako gainerako betebeharrak betetzea.
- d) Estatutu hauek eta elkarteko zuzendaritza-organismoek behar bezala hartutako erabakiak onartzea eta betetzea.
- e) Portaera Kodea betetzea.

BAZKIDE IZAERA GALTZEA

32. artikulua. Kasu hauetan galduko da bazkide izaera:

- 1. Erakundea desegiten denean.
- 2. Bere borondatez elkartetik ateratzen denean.
- 3. Zigor baten ondorioz, egoera hauetakoren bat ematen bada: estatutu hauetan ezarritako betebeharrak edota Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriro apropos ez betetzea.

33. artikulua. Bazkideek Koordinakundetik baja hartzea eskatu ahal izango dute bere borondatez, baina horrek ez du esan nahi bete gabe dituzten Koordinakundearekiko betebeharrak bete behar ez dituztenik.

Zuzendaritza Batzordeak Koordinakundetik bereizi ahal izango ditu bere helburuekin bat ez datozen ekintzak burutzen dituzten bazkideak edo, Zuzendaritza Batzordeak hala proposatuta, Batzar Nagusiak onartutako Portaera Kodea betetzen ez dutenak. Bereizketa gertatu baino lehen, dagokion espediente osatuko da eta erakunde interesatuak entzuna izan beharko du prozesu horretan. Zuzendaritza Batzordearen aurkako errekurtsioa jar daiteke egiten den lehenengo Batzar Nagusian.

ZIGOR ARAUBIDEA

34. artikulua. Zuzendaritza Batzordeak bazkideak zigortu ahal izango ditu Estatutuak edo Batzar Nagusiaren edo Zuzendaritza Batzordearen erabakiak behin eta berriro betetzen ez badituzte.

Honelakoak izan daitezke zigorrak: 15 egunetik hilabetera arteko epean eskubideak etetea eta elkartetik behin betiko kanporatzea, hurrengo artikuluetan aurreikusitako baldintzetan.

Horretarako, presidenteak ikerketa bat zabaltzea erabaki dezake, zigorgarria izan daitekeen jokabiderik egon den ala ez argitzeko. Ikerketa hori idazkariak egingo du, bera baita organo instruktorea, eta dagozkion neurriak har ditzan proposatuko dio Zuzendaritza Batzordeari.

Zigorrak Zuzendaritza Batzordeak berak ezarriko ditu idazkariaren (organo instruktorearen) parte-hartzerik gabe, betiere erakunde interesatuari entzun ondoren. Erabaki hori arrazoitua izango da beti, eta bere aurkako errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Batzar Nagusian.

35. artikulua. Baldin eta bazkideren bat elkartearen uzteko ustezko egoeran bada estatutu hauetako betebeharrak eta Batzar Nagusiak zein Zuzendaritza Batzordeak behar bezala hartutako erabakiak behin eta berriro eta nahita ez betetzeagatik, presidentek idazkariari agindu ahal izango dio alde aurretiko eginbideak abian jartzeko. Horrela, behar besteko informazioa eskuratuko du, eta, horren arabera, jarduerak artxibatze edo bereizketarako zigor-espedientea irekitzeko agindua eman ahal izango du.

36. artikulua. Bereizketarako zigor-espediente bat irekitzen bada, idazkariak, behin gertakariak egiaztatu ondoren, idazki bat bidaliko dio interesatuari egotzitako karguen berri emateko. Interesatuak hamabost eguneko epea izango du bere burua defendatzeko. Epe hori amaitutakoan, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilerako gai-zerrendan sartuko da gaia, eta batzordeak egoki deritzona ebatziko du idazkariaren botorik gabe, espedientearen instruktorea izan delako.

Interesatuari elkartearen uzteko erabakiaren berri emango zaio, aldi berean jakinaraziz erabaki horren aurkako errekurtsoa aurkeztu ahal izango duela egiten den lehenengo Ez-ohiko Batzar Nagusian. Hiru hileko epean batzar nagusi horretarako deirik egiten ez bada, horretarako bakarrik antolatu beharko da. Bien bitartean, Zuzendaritza Batzordeak bazkide izateagatik dituen eskubideak kendu ahal izango dizkio espedientedunari, eta, Zuzendaritza Batzordeko kidea bada, bertan behera utzi beharko du kargua.

Elkartearen uzteko espedientea Batzar Nagusira bidaliz gero, idazkariak laburpen bat idatziko du, Zuzendaritza Batzordeak erruztatuaren idazkia jakinaraz diezaion Batzar Nagusiarri, eta behar bezala azalduko du zer gertatu den, batzarrak dagokion erabakia har dezan.

37. artikulua. Elkartetik bereizteko erabakia arrazoitua izango da beti. Interesatuari erabakiaren berri emango diote, eta dagokion eskubidea betetzeko, horren kontrako errekurtsoa aurkeztu ahal izango du auzitegietan, erabakia Legearen edo Estatutuen aurkakoa dela uste badu.

38. artikulua. Bazkideren bati bere borondatez edo zigor baten ondorioz Elkartearen utzi behar duela jakinaraztean, bete gabe dituen betebeharrak betetzeko eskatuko zaio, hala badagokio.

IV. KAPITULUA

ELKARTEAREN ONDAREA ETA EKONOMI ETA AURREKONTU ARAUBIDEA

39. artikulua. Elkarreak ez du sorrera-ondaririk. Urtero sortzen diren emaitzak elkarrearen funtsean sartuko dira.

40. artikulua. Hauek izango dira jarduerak garatzeko aurreikusi diren baliabide ekonomikoak:

- a. Bazkideen kuotak.
- b. Dagozkion ondasun edo eskubideen emaitzak, eta baita ere pertsona fisikoengandik edota erakunde partikular edo ofizialetatik jaso ditzakeen diru-laguntzak, legatuak eta emaitzak.
- c. Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Nagusiak erabakitako legezko jardueren bitartez Koordinakundeak eskuratu ditzakeen diru-sarrerak, betiere estatutuek ezarritako mugen barruan.

Elkartearen ekitaldia eta ekitaldi ekonomikoa urtekoak izango dira eta, beraz, urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko dira.

Elkartek jarduera ekonomikoen bitartez (emandako zerbitzuak barne) lortutako irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabiliko. Hori dela eta, ez dira inolaz ere bazkideen artean banatuko. Era berean, ez dizkiete doan lagako irabazi-asmoa daukaten pertsona fisiko edo juridikoei.

41. artikulua. Ekitaldi ekonomikoa eta aurrekontu ekitaldia. Ekitaldi ekonomikoa bat etorriko da urte naturalarekin, eta, beraz, urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da. Zuzendaritza Batzordeak ekitaldiko aurrekontua aurkeztuko dio Batzar Nagusiari azalpenezko memoriarekin batera, hark onar dezan.

42. artikulua. Urteko kontuak. Zuzendaritza Batzordeak ekitaldia amaitu ondorengo urteko lehen hiru hilabeteetan osatu beharko ditu urteko kontuak, eta Batzar Nagusian onartuko dira. Koordinakundeak Irabazi Asmorik Gabeko Erakundearen Kontularitzako Plan Orokorra aplikatuko du.

43. artikulua. Kanpoko ikuskaritza. Koordinakundeak kanpoko ikuskaritza bat edo kanpoko berrikuspen bat egin beharko die urtero bere kontuei.

V. KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

44. artikulua. Estatutuak aldatzeko erabakia horretarako bakarrik deitutako bazkideen Ez-ohiko Batzar Nagusi batean hartu beharko da. Zuzendaritza Batzordeak Talde Txostengile bat izendatuko du, bazkide diren hiru elkartetako ordezkariak osatua, eta talde horren lana izango da aldaketa proiektua idaztea Zuzendaritza Batzordeak emandako jarraibideen arabera. Zuzendaritza Batzordeak jarriko du proiektua amaitzeko epea.

45. artikulua. Aldaketa proiektua epe barruan idatzi ondoren, egingo den lehenengo Zuzendaritza Batzordeko gai-zerrendan sartuko du presidenteak. Zuzendaritza Batzordeak proiektua onartuko du, edo hala badagokio, Talde Txostengileari itzuliko dio berriro azter dezan.

Proiektua onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak egingo den hurrengo Batzar Nagusiko gai-zerrendan sartuko du, edo batzarrerako deia egingo du horretarako bakarrik.

46. artikulua. Batzarrerako deiarekin batera Estatutuak aldatzeko proiektuaren testua bidaliko da, bazkideek kasuan kasuko zuzenketak bidal diezazkioten idazkariari. Gero zuzenketa horien berri emango zaio Batzar Nagusiari, betiere idazkariak bilera egin baino zortzi egun lehenago jaso baditu.

Zuzenketak banan-banan edo taldeka egin ahal izango dira, idatziz, eta beste testu baterako aukera eskainiko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Nagusiak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta hirugarrenenganako eragina izango du Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatzen den unetik aurrera.

VI. KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTEAREN ONDAREA APLIKATZEA

47. artikulua. Elkartea desegin egingo da:

- a. Bazkideek hala adierazten badute horretarako deitutako Ez-ohiko Batzar Nagusian.
- b. Estatutuetan zehaztutako epea edo baldintzak betetzen badira.
- c. Beste elkarte batzuekin bat egiteagatik edo beste batek xurgatu duelako.
- d. Legez ezarritako gutxieneko bazkide kopurua betetzen ez bada.
- e. Elkartea desegitea ebazten duen epai judizial irmo bat ematen bada.
- f. Elkartearen helburuak bete ezin badira.

48. artikulua. Elkartea desegiten bada, desegiteko erabakia hartu duen Batzar Nagusiak Batzorde Likidatzaile bat izendatuko du. Bazkide diren hiru elkartetako ordezkariak (Zuzendaritza Batzordeko kideak) osatuko dute Batzorde Likidatzailea, elkarteko funtsen ardura har dezan.

Elkarreak bazkideekiko eta hirugarrenekiko dituen betebeharrei aurre egin ondoren gelditzen den ondarea, halakorik balego, irabazi asmorik gabeko erakunde bati emango zaio irabazi asmorik gabeko helburuetarako erabil dezan.

AZKEN XEDAPENA

Batzar Nagusiak Barne Araudia onartu ahal izango du Estatutu hauek garatzeko, baina araudi horrek ez du Estatutuetan adierazitako ezertxo ere aldatuko.